


zeruko ARGIA




IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 ASTIAN · TEL. 426666 · PREZIOA 7 PEZETA

“MIKELAR,” LAZKAOKO IKASTOLA BERRIA



Hauzo lanean egindako ikastola



Eskainirik du eguzkiak arratsaldeko bere azken musua. Goierrin gaude. Lazkaon. Oraintsu eraiki duen ikastola berria. Amaitu dira ikastola barruan jarduteko orduak. Jolasen dabilta haurrak. Gelak txukuntzen ari dira andereñoak. Kristalezko etxea dirudi ikastola berri honek. Herriak egindako ikastola duzu. Zoritxarrez, bada talde edo elkarteren baten mede erortzen den ikastolarik. Denok dakigu ikastolek estuasunean babes bila jo behar izan dutela. Eta gero babesaren truke aitzaki-maitzaki denaren jaun eta jabe egiten da zebait. Hemen zoritxarrez izen-zerrenda luzetxo jarri nezake.

Baina utz dezadan hau guztia eta eman dezadan Lazkaokoaren berri. Gipuzkoan jaso den ikastola-etxe berria. Lehenengo, noski. Arrazoi horrek ekarri gaitu Goierriraino. Ibilian ibilian, lege zaharrera mahain baten biran eta ardo hurrupatxo bat lagun, burutu dugu elkarrizketa. Zebait andereñoekin (Arañtxa, Kari, Mari Pilar) eta zebait gurasorekin egon naiz (Joxe Mari, Gurutz...).

Oroitzapen asko dute. Ezin ahaztu dituzte oraindik Marixabel Aldasoro eta Mari Karmen Ezaguirre, lehendabiziko andereño haiek. Eta nola ahazt AITOR zena, ikastola sortzeko hainbat izerdi bota zuten guraso jator hura?

—Hara, noiz eta nola hasi zenuen Lazkaon ikastola?

—Hasi? Ahal zen bezala: orain dela 9 urte eta 20 haurrekin. Bordaxuriko gela batetan. Bordaxuri, emakumeen biltokia da eta hauei esker hasi ginen. Zerbitzu ederra egin ez bazioten gero herriari.

—Esango al duzue zer historia jarraitu duen geroz Lazkaoko ikastolak? Irribarre maliziatsua ikusi dut guztien ezpainetan. Batek:

—Katua bere umeekin bezalatsu ibiliak gara gu ikastolarekin, baina tira! halere, lehendabiziko urteetan sekulako indarra erakutsi zuten herriari eta herriz kanpo landare herriak. Honen eraginez sortu bait ziren beste zebait ere Goierrin. Haur talde haundia biltzen zen urtero. Diruz ere ongi moldatzen ginen. Lekuarena zen guretzat arazo nagusia. Horretarako leku egoki bat ez edukitzeak asko mugatu gintuen beti. Lekuarena ere, ahal den bezala, baina, konpondu izan dugu: parrokia, frailei eta azkenik... “Gurutze” delako dorrearen azpian zebait familiar esker. Hiru lekuotan eduki dugu ikastola azken urteetan.

—Zer dela eta eraiki duzue MIKELAR ikastola hau?

—Bistan da zerk eragin zigun. Irakaskintzako lege berriak. Lege Berria baldintza berriak ezarriaz zetorkigun. Hauetarik bat, guztiok dakigunez, lekuarena. Horregatik, gure asmoa lehendabiziki hartan, leku egoki baten jabe egitea zen. Bi zatitan banatzen du Lege Berriak oinarriko irakaskintza. Aurrenekoa, 6tik 10era artekoa, hemen emango dugu. Bigarren zatia, berriaz, ballara mailan daukagun Lizaoan, Beasainen. Hau da asmoa. Burutuko ahal dugu behintzat!

—Zuek egin duzuen hau bera egin beharrean gaude Euskal Herriko beste ikastolak ere. Interes-

garri zaigu zuen urratsen berri jakitea. Joxe Mari hartu du oraingoan hitza.

—Bai, guretzat ere interesgarri izan da. Hasteko, batzorde bat moldatu zen. Batzorde bat, baina herrikoia eta obra guztiaren ardura bere gain hartuko zuena: Ikastola-Batzordeko zebait, Mikelar-Elkarteko zebait eta herriko beste zebaiten artean osatua. Gure helburua: herriko indarrak elkarreztatzea izan zen; herriari galdegitea ea on zen, komeni zen, behar ote zen ikastola berria, eta herriak ano betean eman zuen hitza, hitzez lehenik, obraz gro. Horretarako, zailtasun edo gorabehera frango iraganik zen herria eta gisa horretako obra bati ekiteko aski prestaturik zen giroa.


—Eta onla burutu da obra?

—Lehenik, Mikelar Elkarte dela bide. Legearen aurrean kooperatiba moldearen bizitegi multzo bat da delako Mikelar Elkarte hau. Bestalde, Mikelar-ek bazuen eskola bat eraikitzeko gorderik lur zati bat. Bazuen ikastetxea jasotzeko eskubidea ere. Halatan bada, Mikelar-ek eskaintza hori herriari, eta herriak onartu. Ez da beste-rik izan.

—Baina nork egin du lan?

—Kontratista eta beste zebait ofizialen behar beharrezko lana kenduz gero, peoi lana behinik behin eta beste zulo asko herriak bete ditu hauzo-lanean parte hartuz. Hamaika larunbat arratsalde, jai eguerdiarte eta astegun iluntzeko ordu sartu ditu jendeak urte eta erdi honetan! Bereziki beharko lirakeke aipatu batzuren batzuk.

—Hemen, denak mintzatu nahi. Denek zuten zerbait esateko. Gauza asko kontatu didate. Baina nik neureari eutsi diot. Galderak egi-



teari: Hau esperientzia ona zatekean noski?

—Ez da dudarik, lan jatorria egin dela. Beti uste izan dugu: irakasleak, gurasoak, laguntzaileak... ahal den herriarrik gehienak parte hartuz egin behar dela ikastola, eta hau hori frogatzeko eskarmentu on bat izan da. Esperientzia estimagarria. Behin baino gehiagotan atzapar itsusiak gure gain eta kinka larrin ibilirik gaudenez, are gehiago.

—Ikusi dut barne eta kanpo ikastolaren egitura eta eitea. Arras gustatu zait. Noren ideia izan da?

—Madariaga-Gallastegi izan dira arkitekto, eta X. Zabalo laguntzaile. Har bitzate gure goresmenak Z.A.ren lerro hauen bidez.

—Etxeaz ohartu zara, inguruko etxeen arabera moldatua dagoela. Bi oinekoa da. Behetia. euri egunetan babesteko gela lasai bat, zerbitzuak eta idazkaritza. Goitia: lau ikasgela, libreak barne aldetik eta kristala eta argia kanpo aldetik.

—Horrek harritu nau. Zer alde on aurkitzen diozue honi? Zuzenki andereñoek egin diet galde hau.

—Barne libreak izateak isiltasunera eta elkarren berri ikasi edo gutienez elkar errespetatzera eraman ditu haurrak. Ez da posible bestenaz la egiterik, eta heziketak ikastolaren barnean eskatzen duen giroa sortzea.

Gainera, ikastola kasik kristalezko ontzi bat izateak ez ditu hau-

rrak bizitzatik at ateratzen edo aldentzen: okina eta esneketaria egun oro ikusten dituzte familiara ogia edo esnea zerbitzatzen; etxekandrea gauzak erostera doalarik, sendagilea gaixoren baten gana... etab.

Honek, jakina, heziketaren arazoa digu bizi-biziki planteatzen, eta ez haurrei buruz bakarrik. Funtsen, haurrak bait dira bizitzaren barneko saltsa hori gozartzen dutenak. Guraso eta irakasleoi gehiago gostatzen zaigu, bai, ikastolak bizitzatik hurbil behar duela pentsatzea eta horretara ahalegin betean geure buruak ematea. Arrunt kaskagorturik gaude puntu honetan, eta zenbat elkar ezin aditu geure artean hauxe dela medio!

—Zuek, agidenez, garrantzi handia ematen diozue heziketari. (Batera bezala jaso dut erantzuna).

—Bai-eta halaxe da izen ere. Eta heziketaren arazoa egiaz konponetzea nahi badugu, geure burua digu guraso nahiz irakasleok heziketaren eraman beharra. Honi erantzun nahirik gabiltza aspaldian, ikusten bait dugu derriorekoa dela, eta zenbait ekintzatan elkarrekin jotzen dugu. Adibidez: guraso eta irakasleok osatzen dugu Ikastola-Batzordea; andereño edo irakasle bakoitzak bere ikasgelan dituen haurren gurasoekin badu harreman eta bilkurarik; hitzaldiak: psikologiari ari gara bolada honetan, etab. Dena gutitza eta dena jotzen dugu beharrezko.

—Orain, guraso eta irakasleei, denei batera, egin diet onoko galdera hau: esan al daiteke uzten asmo guztiak edo gehienak bete-rik direla?

—Ez. Inola ere ez. Lekuaren arazoa hein batetan bakarrik bait dugu konpondu. Lehen ere izan dugu zailtasunik asko (Legearen arazoa, ikastolaren itzea, gure arteko indar-joko eta tira-birak...). Eta geroari begira oraintxe beretik ditugu pentsaturik: lilitegi edo guarderaren arazoa. Bigarren urtea daramagu honetan. Aski ondo doa. Hor dago hori bi urtetako haurrekin lan egin nahi bada egiaz. Behar beharrezkoa da batez ere euskerarik ez dakiten haurrentzat. Geroari begira ere, jarraipenerako, hor dago lizeo berriaren arazoa. Bailara mailan zuzendu beharrezko arazo latza hau ere noski. Baina Mikelar ikastola berria bederen badugu orain...

—OO—

Ez dago geldirik Lazkaoko ikastola. Lanean benetan ari den jendea ezagutu dugu. Kezkatutako jendea. Arazo berdinekin gabiltza beste herrietan ere ikastola arloan gabiltzanok. Saiatuz gero atera ditezke gauzak aurrera. Zorionak, Lazkaon!

BERTSO BERRIAK

NERE BORDATXOTIK

Joan dan igandean, bere sor-terri Zarautz'en, D. Juan Iru-retagoiena jaunak, urrezko ez-taiak ospatu zituen apaizgintza-ekin.

1923'garren urteko apirillaren zortzian eman zuen lenengo meza Zarautz'ko Eliz Nagusian.

Igandean ziran berrogeitamar urte, ta igandeko meza emate-ko zoria ere izan zuen, D. Jose Mari Setien, Donosti'ko gotzai laguntzalea ta Zarautz'ko erre-tore jauna ezker-eskubitan zi-tuela.

Erritarrez gainbeka eliza. Go-tzai laguntzalea izlari, euske-raz.

Igande bererako iru bertso moldatu genituen, D. Juan'ek ongi mereziak izanik.

ON JUAN IRURETA-GOIENA

Zarautz'ko baratze emankorretik sortutako landarea, gazte-gazterik aukeratua zenduen zeure bidea. Gaur dira berrogeitamar urte, egun berdinik gabea, eskuetara jexi zitzaizun Zeru ta Lurren jabea.

—oOo—

Kristo'ren ordezkari egiñik gelditu ziran zu garaiz, ogeitalau bat urte zenitun; ba-dakigu nun eta noiz. Artu zenduen bide artatik etzera okertu inoiz, iritxitako toki danetan beti agertuaz apaiz.

—oOo—

Lan aundia da tarte orretan gogotsu egin dezuna, apaiz modura zintzo betea daukazu eginkizuna. Au da "Basarri" biotz erditik maiteki opa dizuna, zorion betez ospa zazula urrezko eztaiguna.

—oOo—

Joan dan igandean, baitere, trikitilari zarrei eskeñitako omen eguna izan zan Azpeiti'n. Aientzat ere moldatu genituen bertso bi.

—oOo—

Trikitilari zarrak Azpeiti'n izango dute batzarra, gazte denbora gogoratzeko eztezute une txarra. Soñu, pandero, pizten zenduten alaitasunaren garra, Euskalerriko mendi-baillerak ba-zuten zuen bearra.

—oOo—

Ongi dakigu zer erromeri izaten ziran lenago, kantatuz: "anak ariñak eta burua askoz ariñago". Euskalerrri au urte gutxian guztiz aldatu dago, orduko sanidaderik ezta izango emen geiago.

—oOo—

Izaki guztiok ba-degu zerbaiz akats. Akats gabeko gizonik eta erri-rik eztago aurkitzerik. Bat ez-

pada bestea, baiña danok zerbat.

Gure arteko eztabaidarik geienak apustu bidez erabaki-tzen dira, ta obe dala uste de-gu odol bidez erabakitzea bai-ño.

Labanak edo kutxilloak ate-rata ibiltzea ez litzake ohea izango.

"Bai, ez, ez, bai"...; zenbat joka nai dek?

Bota dirua!

Ondo dakigu guk gorabera auen berri. Urtearen buruan zenbat etortzen ote zaizkigu argibide billa!

Ospatzen diran joko guztien agiria jasotzen du Gipuzkoa'ko Federazioak. Agiri oien kopiak bialtzen dizkigu guri, ta bene-tan eskertzen diogu auxe.

Ontara ba-dakigu, zeriñek zer garaitan eta zer marka egin zuen, naiz izan aizkolari, arri-jasotzaile, korrikalari edo se-galari.

Kopia oien bidez egiten di-tugu pakeak, duenari arrazoi emanaz.

Dirua eztanean, apari mordo bat jokaten da, edo berdin bazkari mordo bat.

—oOo—

1930'garren urtean, Iruña'ko "Dario de Navarra" egunkariak ale berezi bat atera zuen uz-taillaren zazpigarren egunean, San Fermiñak zirala-ta.

Ale artan, Jokintxo Ilundain jaunaren artikulua bat agertu zan.

Au da dalako artikulua zio-na:

Milla, zortzireun da bigarren urtean, aizkol-apustu sonatu bat jokatu zan Ernani'n. Eliz na-gusiaren aurrean jokatu ere.

Aizkolariak: Ezkurra'ko Eli-zalde ta Astigarraga'ko Ernandorena.

Mutil luzea zan astigarraga-tara. Arano'ko mendietan egi-ten zuen lana.

Lau illabetearen gobernatzen egon ziran aizkolariak. Esanda-ko urteko garagarriaren (ju-nio) zazpigarren egunean joka-tu ziran.

Egundoko jendetza bildu zan Ernani'n, eta izan zan apustu-rik asko.

Apaizak ere tarteko ziran. Aiek ere jokatu egin bear no-labait.

"Ernani'ko erretoreak meza eman baietz berak amabost en-borrak ebaterako", egin zioten apustu Elizalde aizkolariari.

Onak ezetz, eta dirua bota.

Elizalde izan zan irabazlea. Amabost enborrak ogeitairu mi-nutu pasatxoan ebaki zituen.

Galtzaile Ernandorena'k eta Ernani'ko erretoreak denbora berdiña bear izan zuten, batek egurrak ebaten eta bestek me-za ematen: ogeitabost minutu.

Apustu areñ aitamenak ba omen dira oraindik Goizueta'n.

Rafael Agirre Franco jaunak uste duenez, norbaiztuk iraku-rria eukiko zuten len aitatuta-ko artikulua, ta ark ziona za-balduko zan errian.

Etzan gizaldiz-gizaldi, aotik aora iritxia izango.

Gu ere uste ortakoak gera, batekoz bestera izateak poz geiago emango baliguke ere.

Etzaigu esaten zer neurritako egurrak ebaki zituzten.

Seguru bezela jotzen degu 36 ontzakoak, oinbeteakoak izango zirala.

45 ontzakoak izan balira, etzi-uen Elizalde'k 23 minutuan ebakiko.

Marka aundiegia da ori, ta denbora aietarako, batez ere, naiz eta lau illabetearen prepa-ratzen egon.

Bere lana itxurazko denbora batean egin zuena Ernani'ko erretorea izan zan, gure ustez. Orduko latinezko mezak 25 mi-nutu inguruan ematen ziran. Batzuk azkartzeago, bestek nekezago, baiña batz bester or-te numbait.

Elizalde'ri apustu egin zioten apaizak etzuten erretore jau-narentzat zer esanik izango.

iAek pentsatzen zuten baiña aizkolari trebeagoa irten Elizal-de, ta ortan izan zuten okerra.

Ez uste amabost enbor ogei-tairu minutuan erdibitzeko ka-paz zanik.

Basarri

ZERUKO ARGIA BIZKAIKO ERRI AUETAN SALTZEN DA:

MARKINAN

M. Loli Agnaga, Artibay, 24

BONDIKA-ASUA

E. Astarloa

LARRUSKAIN

Parrokia

GERNIKA

Ruiz Bustillo

ONDARROA

M. Zulaika

BILBAO

Librería Armendariz Dr. Arellza, 50
 Librería Azkatagui Cinturería, 4
 Librería Bilbaina Plaza de los Mrtires, 2
 Librería Verdes Correo, 7

GALBAKANÓ

J. Altuna Urreta, 34

ABADIANO

J.F. Zubero S. Prudenziolo, 7

— 1 —

Andragaiakin nabil amabi urtean, ia erretirua ez du apartean. Ezkontzarekin beintzat ez naiz suertean, aguantatu bearko degu bitartean, bizi leku bat nunbait erosi artean.

— 2 —

Ai! zenbait buruaste «pixu-erosteak» ta gero bear diran mueble ta trasteak. Geroarekin ez du pentsatzen gazteak, baiña ez du balio itxuan asteak, konturatu zaitezte nerekin, besteak.

— 3 —

Zortzi mila pezeta illeko jorrala, kontuak aterako ditut bereala: gutxienez erdia mantentzeko dala, gero jaztea eta gastuak dirala... sobratutzen dan pillá ez dezu makala!!!

— 4 —

Gaur pixu batek daukan prezio-tamaña, ez da langillientzat jarri, alajaiña. gaiñontzeko gastuak geroko ordaiña, ezkonduko nintzake pozik asko baiña, ortarako bear det Onassis-ek aña.

— 5 —

Zenbait paseo triste erriaren bueltan, animatuzten giñan goiko errebueltan; Andragai noiz dagon goibel edo altan, nik antz ematen diot arpegiko plantan, ez gera ezkonduko ezagutu paltan!!!

— 6 —

Lengoa pasatu dit azken abixua, aurtan ezkonduzea dala prexixua. Anima ondoraño sartu zait izua, konprenditu zaidazu andragai gaixua, nundikan kontsegitu bear det pixua...?

— 7 —

Etxera ezkontzea nai naute beartu, gurean kanpokorik ezin leike sartu. Gurasoak edadez naikoa zabartu, petralkeri asko ta jenioa txartu, inpernu ontan nola aingeru bat artu?

— 8 —

Artu zazu erraiña gona motz motzakin, igual jarriko zaizu modako galtzakin; Gero berak naiko du diruan poltsakin, laister joko lioke buruan pertzakin, nere amak dituan bibote beltzakin!!!

— 9 —

Baldin diru gutxikin badezu kartera, etzerade juango oso apartera. Gauz danak garestitzen urtetik urtera, sartu baiña lenago inpernu batera, bizimodua zer dan kontuak atera.

— 10 —

Soltero gaudenean zenbat tripakara...! Gero andreak diru gutxi patrikara. Geiegi bete gabe askotan ijara, ezkontzari serio emateko kara, pentsatzeak bakarrik sartzen dit ikara.

— 11 —

Arkitzen ez duanuk pixuan aukera, laister joko du arek ijito-legera. Bestela beintzat beti gora eta bera, asmatu ezifikan geroko jokera, azkenean bertantxe ajatuko gera.

— 12 —

Fiatu zaitezte la olako andragai, despedida eman dit, ez da oso garaiz. Au gertatuko zala pentsatzen nuan maiz, ez andra ta ez pixu orain gelditu naiz, juan omen ninteke fraille edo apaiz.


— 13 —

Oraindik lasai nago mutilzar ordeko, igual ni azitako bainaute gordeko. Familia azita ainbat edadeko... gizona artzen badu bildurrak mendeko, mutilzar segurua eternidadeko!!!

— 14 —

Edadean sartuak badu au ta beste, zergatik ezkontzeko pentsatu ainbeste...? Urtietan goraka baldin bazoazte, zaudeten bitartean indartsu ta gazte, zartu baiña lenago ezkondu zaitezte.

IZAZPIK



MITXELENA

ORDULARI ETA BITXITEGI Zatoz gugana anuntzio honekin eta KANARIAS-en baino merkeago erosiko duzu zure errojua

Matxin Arzu, 1

ONDARRABI

HAUR IDAZLEHIAKETA

Getxoko "Alday Itxas-Gane" elkarte...

KANTA LEHIAKETA

Portugaleteko "Gaurko Gazteak" deritzan Elkarteak...

- Sariak honelatsu izanen dira: 1.-Disko grabaketa...

EUROPA

Mahai gainean dugu Arrasaten argitara ohi den T. U. (Trabajo y Unión) aldizkaria...

EUSKAL LIBURU ZERRFENDA

Durangoako Azokan aginduta...

AITA ONAINDIA

Jaso dugu ETOR/GERO hauzaren ondoren...

LABUR LABUR

Martxoaren 30ean, Iruñeko Gayarre Antzokian...

tik 1960'arte —Zaitegi ta Orixe'ren aroa— bostgarren alea...

Bestalde, Euskal Literatura honek jarraituko duen hildoa...

Euskal Literatura honek euskaraz egundaino burutu den...

Ortografiari buruz, ez da, agian, kontu handirik izan...

Dena den, martxan ba, Aita Onaindiaren Euskal Literatura...

AMUARRAINAK

Behar bada zenbait zentzutan harrigarri badirudi ere...

Hala ere, honetaz guk baino gehiago dakien zenbaitek...

Izan ere, legearen indarra duen agiri batetan, Gipuzkoako...

ORAINGO GAZTEAK

Sortua da Azpeitian "Oraingo Gazteak" deritzan...

LABUR LABUR

Martxoaren 30ean, Iruñeko Gayarre Antzokian...


erakutsi eta jakinarazi asmoz. Gayarre Antzokian prestatu...

Eta Nafarroan ezekik, bai eta beste zenbait herrialde...

Martxoaren 31an. Xabier Lete, Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo...

Apirilaren 8an. omenaldi bat eskaini zitzaion Azpeitian...

Goiz erdian ongi-etorria. Ondoren kalejira eta beza sandua...



Apirilaren 13tik. 18ra. arteko sei egunen buruan eratzeko...

Beste zenbait talderen artean, apirilaren 15ean. Sabin Salaberriaren...

Joan zen astean Eibarren eratzeko ziren hiru hitzaldiak...

Arrasateko lantegi kapitalista batek 500,- ptako akzioak...

Baten batek csan zuen kooperatibek ez zutela bizi eta irauterik...

Iruñeko "Amigos del Arte" izeneko musika elkarteak antolatzaile...


Inork nahi badu parte hartu eta gainontzeko xehetasunak...

Azken saioa Gayarre Antzokian ospatuko da, denboraz jakinaraziko...

Laudion sortu berria da kanta talde berri bat, "Santa Luzia"...

Azkenik, apirilaren 17an, erabateko jaialdi bat eratzeko...

AMATINO



FRANTZIAKO LEGE-ETXE BERRIA

Ego Ameriketako berriak ARGENTINATARRAK ALDAKETAREN ALDE

Erabaki da joandako ilabete luzeetan auteskunde aukerari erantsita zeramaten ezbaia.

Ezkertiarrek ez dira eldu itxadon zuten elburura, lehengo gehiengoaz jabe zireak eraberean beste berriz jabetu dira eta uste zen baino zer-bait indar aundiagoaz.

Ez daigun eman artobero usairik idazlan oni, au, ori eta bestea esan gendun eta ikusi duzue eta abar jardunaz. Esanak esan irakurlea da jaun da jabe bakarra ongien epaitzeko zenbaterainoko indar izan du ten nahiz ustearen ustela nun gelditzen dan adiratzeko.

Sar gaitzen gaurkoan, ikus daigun labor oraingoak zer eman) digun auteskundetako bi igandetan Alderdi nagusienei buruz;

1973 MARTXOAK 4

P.C.	5.063,981	autarki	% 21,34
P.S. ta radikalak ...	4.899,965	"	% 20,65
P.S.U. ta ezkertiar ezkertar ...	781,976	"	% 3,29
URP. ta rep. ind. ta CDP ...	8.242,661	"	% 34,74
(Lehengo gehiengoaz)			
Lecanuetarrak ...	2.967,481	"	% 12,50

Ori da lehenengo igandeko joku zehatza.

Bigarren igandean Lege-Etxe Berrirako diputadu aukirako autetsiak era ontan banatzen dira gorago aipatutako Alderdiei bakarrik gagozkiela;

P.C.	73	
P.S.	89	
Radikal ezkertarrak ...	16	181
P.S.U.	3	
UDR ...	180	
Rep. Ind.	53	254
CDP ...	21	
Lecanuetarrak ...	28	28

Lege-Etxe berria 490 aldun diputaduk osatzen dute beraz gehien-goaz jabetzeko, erdiak eta bat, 246 dira danera.

Zer erakutsi digun bigarren buelta onek. Garbi, batetik, oraingoan ere Frantziako Erria ezkertiarren batasuneko egitau-asmok edo programari baietz emateko ez dala gertu, ala izatean komunistak jabetuko zirelako aginteaz Alderdi gogorragoa ta askoz eere obeto eraldutakoa eta kementsuago agertu direlako.

Zenbait tokitan agerian gelditu da ainbat sozialistak ez dietela jarraitu zintzo Alderdiko nagusiak emandako arauak.

Ikusi da baita UDR. eta lagunkide direnek gutxienez 110 diputadu galdu dituztela. Ainbat aldiz esana zen gertaera au, zegatik 68 garreneko zalaparta ondorengo auteskundea berezia izan zelako, beldurraren buitzada batez gizendua.

Lecanuetarrek ezkertiarren aurka biziki erabakiak, lortu dute aukeraren menperatzea, baiña lortu ez dutena da, ain amets izanik ere, lehengo gehiengoaz jabe zirenak oraingoan eraberean ez jarraitzea. Ori zuten bigarren amets aundia, beren indarraren behar-beharrezko ipintea UDR. tarrak baldin gehiengoaz jabetuko baziren. Bigarren amets au ezina agertu zaio, nahi biak ezin ba lortu batera, batetik UDR. tarrei lagundu ta bestetik laguntza orren bidez beren ametsa zokoratu.

Jaurlaritzako bi ministru izan dira jokoa galdu dutenak, Shuman eta Plevin. Batez ere lehenengo ori atara ezak min aundia eman diote.

Ilabete guti igaroko dira eta CGT ta CFDTko. Langile Alkarte biak burruka bizi batean sartuko dira Jaurlaritza gobernu berriari buruz. Batez ere Seguy jaunak iru ilabeteko isil unea, komeni zitzaion bere jokorako bakantza oiek gaindu nahiko ditu.

ALBERDI tar ANDOLIN

Militar indarrak alferrik jardun dute peronismoaren aurka eta 1955-garren urtetik 1971-garrenarte bera legez kanpo mantentzen. Auteskunde lioreak eta peronismoaren berretortzeko bideak eratzeko prest egon ziren Frondizi eta Illia lehen-dakarien ondarena aiferrikokoa izan dela ikusten da. Lanusse jeneralak taktika erosoagoa eta bizkorragoa erabiliarren ere, ez du bere asmoa bete ahal izan.

Peronismoaren garaipena zalantzarik gabekoa izan da. Lanussek nahiz eta bere tristura gordetzeko lain ez izan, gertaera besterik gabe onartu behar izan du. Izan ere, korrupzioan eta gobernatzeko gai etzen garai bateko Juan D. Peron Estadu buruzagitzatik bota zutenak ez dute berehalan onartuko gobernuko aukia berari uztea. Azkarra eta liberala, ongi asxo ohar-tu da Lanusse jenerala etzegoela luzarogoa uzterik Argentinako gobernu miitarren esku eta ezinbestekoa zela uniformegabekoei arazo hori itzultzea.

Halere, auteskunde hauetan ezta Peronen mito zaharra eta izen atsegina bakarrik berpiztu. Argentinatarrak, Peronen izenaz baliaturik, aidaketaren alde agertu dira.

Argentinako egungo gizarte berriari egokitzen etzaion uniforme-ko jantzia baztertu egin nahi izan du martxoko auteskundeak. Militarrak ezin zuzendu zezaketen inflazio gaitza eta atentaduak zekar-ten segurantzik ezak gaitzetsi ditu.

Dena dela, nor da garaile "berri" hau? "Justzialisten mugimenduaren" kandidatua, H. Campora hortz kirurjilariaren alde autarki-ak eman direnean, Peronen alde eman direla adierazi nahi zen. Peronen izenean ekiteaz zer adierazi nahi den jakitea ez da gauza erraza. Ezkertiarrek "herria"-ren ordo-ko hartzen dute "Peron" hitza. Baina mugimendu horren barnean badira moderatuagoak, langile kez-kek dituztenak eta baita ere ger-ri-za zale zenbait.

Peronismoaren alde herriaren za-iti haundiena agertu denez milita-rrerren ekonomi politikoa, gaindu



"¡Perón o muerte!"

ezindako inflazioa (%-ko 146 ogei-tahiru hilabetetan), lanik gabekoen egoera (1.500.000 inguruan) gaitzetsirik gelditu dira. Junta milita-rrak zeraman enpresen desnazona-lizazio eta U.S.A.-ren aldeko poli-tika bazterturik gelditu dira.

Justzialisten programaren alder-di nagusienetakoak hauek dira: jornalen haunditzea, nazioarteko salmentak eta bankoetxeen nazio-nalizazioa eta giltzapetu politikoen-tzat amnisti orokor bat.

Agintaritza berria egokitzen de-nean zer gertatuko ote da?

Batetik gerta liteke H. Campo-raren taldeak zenbait neurri pro-gresista eta nazionalizazio batzuek eragitea eta nekazaritzan errefer-ma mugatu batzuek eratztea. Gero ondoren U.S.A.rekin akordio bat egiteko eta aldekatu sakonak beste baterako utziak.

Bestetik berriz, militarrek gau-zak nahasten ez badituzte beintzat, gerta liteke erabaki iraultzaileen garaia etortzea: langile batzorde-en bidea enpresak langileen esku uztea eta imperialismoari arpegi zorretza agertzea. Giro iraultzaile-aren zenbait agerpen han eta he-men agertzen dira: Langile borro-kak oso gogorrak izan dira Cor-

doban eta Tucumanen eta gerra armatuaren zaleak ez dira falta.

Herriak ere, zenbait adierazi du egin duen aukeran. Hala ere, kon-tuan hartu behar da egoera txar-rean demagogoa garaile irten ohi dela.

Dena dela, hor ditugu Peron be-raren hitzak: "Jakin ezalakit non aurkitu lagunak. Chileko Santia-gon, Liman eta agintari herrikoiek dauden Herrietan aurkitzen dira nere lagunak.

Argentinako egoera hau ez da bere mugetan bukatzen. Allende-ren politika indarberritua izan da, Uruguayko militarren imperialis-moarekiko gorrotoa ageri dago eta Mexikoko lehendakaria ez dago prest Washingtonen mugetan ba-karrik jarduteko. Peruko lehenda-kari ordezkoak begi onez ikusi du Allenderen garaipena eta Vene-zuelako gobernu kanpoko inber-sioen alguztitasuna mugatzeko prest dago. Panamak U.S.A. sala-tzeko zalantzarik ez du egin.

Ez ahal dira gertaera hauek de-nak etorkizun berri baten lehen urratsak. Ego aize honek berotu-ko ditu U.S.A.-ko talde agintariak.

D. ZA



**YOGUR
GURELESA
GOGOZKOENA**



TRANSPORTES azkar

ERAMAN-EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:
Iruña, Bilbao, Gasteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Ali-cante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo-ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA
Telefonoak: 450313 eta 459723
Apto. 1381
Apto. 1381

MUEBLES

URRETA VIZCAYA

1920'an sortutako etxea
ERREDIZAK - EDERGALLUAK
EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK
POSTAS 46 GAZTEIZ (Vitoria)

**ZERUKO ARGIA
SALTZEN DA:**

ELGOIBAR
M. Gorostiza

ERBAR
Angera
Markina
Iruñea
Éguren
Gisasa
Barea
Alday
Arenburu
Estanku
Isasi
Simon
Amana
Ureui
Urizar
Sigio

JOSTUNDEGIA MODISTEGIA

UGARTE

Urbieta, 66 DONOSTIA

ASATE OPARIK

GAI TA IRUDI POLITENAK

Victor Pradera, 2
(Esquina Zubieta) DONOSTI

Amorraziozko sutan

Gure egoera kulturalari goitik beherako ebaki bat egiten bazaio, barrua ikertzeko, guraso eta umeen hazaldien arteko diferentzia erabatekoa nabaitzen da. Gure egoeraren gorputz sozialak bi izaki ezberdinena dirudi, kentauro edo sirena baten antzera. Agian hobeto, gure egoerak Jano-buru doblea duela, esan beharko litzake: bata beste-ari kokotetik erantsitako bi buru, alde banatara begira.

Ta bi alderdiok haserre bizian direla, esaten nuen.

AMORRAZIOA ETA ALTERNATIBISMOA

Amorrazioak gure arteko gora behera asko esplikatzeko du: tradizioaren kritikako radikalismoa, itsukeria eta hestukeria anitz, humore txarra eta beste. Alferrikako eta batere beharrik gabeko istiluak. Benetako elkarrizketa, dialo-...

Amorrazioak esatera gogortzen ditu, baina egingo da beste inon, baina Herriaren baimo kritikako gogo-... Amorrazioak askotan perspektiba gal arazten digu: amorrazioaren...

Amorrazioak, batez ere, bidegabeko jeneralizazioak eta sinplifi-... Amorrazioak GOIZ ARGI-ri edo... Herriaren etsaia...

ANAITASUNAK askotan eman izan du inpresio horixe berri ahiz... ZERUKO ARGIA bera ere, Uti-kan eskuindarrak!

Alter-natibismoa... Baina probokazioa propio bilatu ere, egiten da: salakuntza mo-...

Alter-natibismoa... Baina probokazioa propio bilatu ere, egiten da: salakuntza mo-...

Alter-natibismoa... Baina probokazioa propio bilatu ere, egiten da: salakuntza mo-...

natibismoa batez ere postura polemikoa da. Zenbait pentsamolderen arrisku tendenziala ere bada, batez ere ezkerrena egunotan (eskuinak ez bezala, teoria propio bat sortzen lan egiten bait du). Eta goiko adibideekin adierazi nahi du-...

PROBOKAZIOAK

Normalizat har daiteke, euskal- dunoi gure egoeran istilunak usu sortzea. Ahaleginak eginda ere, ez genuke lortuko, iskanbila eta istilurik gabe aurrera iritezta.

Hain minbera eta sentikor bihurtuta gaude, gainera, ze bestelako eritziak eta beste eritziakoen lan- ak gure inguruan, oso erraz, probokazio moduan hartzen bait ditugu. Arrazoiak asko eta diferentiek dira. Baina arrazoiak gora behera, azken finean horixe da, gertatzen ari dena. Nik apenas pentsa ne- zake, adibidez, Aita Villasante eus- kaltzainburuaren agiriak inor probokatu nahi zuenik. Baina ez da jendea probokatu gabe pasatu. Ga- rai batetan, "h" zela eta ez zela, Mitxelenaen eritziak oso erraz bi- hurtzen ziren probokazio, eta doi- doi zabal zezakeen ahorik "h" ai- patzeko, norbait sumindu edo nor- baitek bere alde aprobetxatu nahi izan gabe. Neuri ere gertatu izan zait, gutiena uste nituen proboka- zioak egitea, eta uste dut, horre- lako historiak denok ezagutzen di- tugula, eta gehienok jasan ere.

Batzutan ezinbestekoa da, esa- tera batzuk probokatiboak gerta- tzea: gure tradizioetan sustrairik gabeko pentsa eta mintzamoldeak sartzen direnean, esate baterako. Ez dago, lehen-lehenengotik zuzen ulertuko direla, itzaroterik. Adibi- dez, Bonhoefferen erara, E. Osak erlijioari baztertu beharrezko ba- deritzko, baina fedeari ez, oso ne- kez uler daiteke hori, sola gratia eta sola fides aksioma luterano- ekin ohituta egon gabe. Tamalez, Osak ez ditu sustrai horiek aski esplikatu. Eta hartu ere, batzuek oso gaizki hartu diote (ententzen asko nekatu gabe).

Baina probokazioa propio bilatu ere, egiten da: salakuntza mo- duan, gainera. Nik behintzat hala entenitu nuen, adibidez, LUR- ek beste argitaldarien baten kontra zabaldu zuten agiria, editorial hau —ETOR— klerikal eta jesuitatza emanetz Berdin RA Osaren beraren...

zenbait judizio orokor eta borobil: Vatikanoko 2-gna teologo neokapi- talisten kontzilioa izan dela, suje- ritzaren badigu, esaterako. Edo-ta beste hain esaten badigu: "Beraz, gehiegi ez ginake harritu behar jende erlijiozalea beti eskuindarra izan dela eta eskuineko alderdiari eutsi izan diola ikusteaz. Hori nor- mala da. Erlijioak beragan sortzen duen sikologi estruktura osoak ho- rretara darama, zuzen-zuzenean" (PeG, 66/67). Bapo gelditzen dira Konfuzio, Buda, Amos eta Isaias profetak, Jesus Nazaretarra, egu- notan Albert Schweizer edo Cami- la Torres bera! Egia da, gu ez ga- rela horien mailara ailegatzeko. Ha- lare, Osak ez gaitu oso leku onean uzten, geure buruok oraindik erli- jiozaleak daduzkagun hilkor egu- norokuk... Baina erlijiozalea eze- zik, literatur-zalea ere majo txoka- zen du Osak: "Burgesiak bere Ra- cine, bere Mallarmé, bere Homero, Kikeron, Cervantes eta abar be- har ditu, beheko mailerako jende- etatik berezi ahal izateko. Autore klasikoan bidez, esateko ere izku- tuak eta misteriosuak, alegoriak, hizketaren elegantzia ikasten da. Eta hori beharrezkoa da, ezer guti dakiena hitz jarriaren saretan erraz bildu ahal izateko" (Ibid. 86). Arrazoiak hori baldin bada, benetan, burgesiak behar dituzten eta daduzkan Autoreen lista, asko luza liteke: Marxek hainbeste es- timatzen zituen Goethe, Shakespe- are eta Balzac, teatro grekoaz apa- te. Baina zergatik ez K. Marx be- ra, Th. eta H. Mann, Pushkin, Gorki, Maiakowski eta beste mila? Tira, erlijiozalea eta literaturzalea, matematikoaren konpainia reki n aurkitzen dira berehalaxe, eta las- ai daitezke: "Gaurko matematik- ak ere sistema baten produktuak dira, ez halabehar duen zerbait" (Ib. 84). Sobietarrei eta txinoei ho- rixe lehenbailehen abixatu behar diegu, halafede...

Pedagogia eta Gizartea, E. Osaren liburu benetan interesgarri eta aprobetxagarria, ez da merezi zuten haina aprobetxatzerik egon. Agertu, amorraziozko giro alternatibis- tan agertu zen. Baina eragin ere —eta behar bada horrengatik, apropos— liburuaren tankera jene- ralarak giro alternatibista harixe na- barmenegi eragiten zion. Bildur naiz, hori, bai liburuaren, bai egi- learen, eta bai euskaldunen kalte- tarako izan dela. Noizpait benetan seriotan hartu beharra edukiko du- gun makina bat gauza, ez da ba- tere haintzat hartu. Liburuak probokatio gertatu zen, eta oker ez banago, esaten diren gauzengatik baino gehiago, guziaz esateko mo- duagatik.

Ez da beti erraza, asmatzea, eus- kal plaza honetara nola jaigi. Ha- serreak, normalez gainera, behar- rezkoak ere izan ditzakegu agian. Nolanahi ere, burruka behar-beha- rrezko dugu. Hala dio Haranburu- Altunak, hala dio E. Osak, eta edozeinek esango luke horixe: agian

han da, denok ados gauden puntu bakarra. Bakoitzak bere erara en- tenituz, jakina. Arenaz tar Josu ta Beistegi tar Jon ere burrukari ageri dira, amenazo beltzak botetz batzutan. Adibidez, Mr. H. miste- riotsu bati leihotik behera botatze- ko-edo mehatxua egiteraino aile- gatuz. Ta ziur egongo dira, hala- xe jokatzeko komeni dela gaur, ez dagoela beste erremediirik: "gure aurretikoenganako lotseak eta mai- tasunak eragina baino ez ba'da be". Arrano bihurtu den usari —GOIZ ARGIkoren batek horre- laxe ikusten bait du— hau da, "besteen kuplaz" burrukan hasi de- nari, eta denak halaxe hasi zaiz- kigula ematen du, ezin burruka- rako arrazoirik falta dakioko. Ta esan ere, zeinek esan, arrazoirik ez duenik?

Orain, nik ez dakit, dena burru- karen perspektiban ikusi behar ote genukeen, probokazio sistematiko- ari ekin dioten batzuek, itxuraz, usteko dutenez. Nik neuk arazo as- kotan, batez ere zientziarekin eta azterketarekin lotuta gabiltzanean, neutraltasun gehixeago posible ba- dela eta komeni litzazukeela, pen- tsatzen dut. Baina, esaterako E. Osak, ikus daitekeenez, ez ditu neu- tralutasunok gehiegi estimatzen. Ha- ranburu-Altunak ere ez. Mitxelena- ri erantzunez adierazi digun beza- la. Eta printzipialki behintzat, neu- ri ere ez zait gaizki iruditzen. Gi- zarte normal batetan denetik egon behar du: "anormalidade" batzuk ere bai...

Dena den, badirudi, Autoreok neutraltasun gehiegi aurkitzen du- tela. Arenaza eta lagunak, berriz, gutiegi aurkitzen dute: ez Euskal- tzaindiak eta ez beste inork diru- di, hauen begitan, neutral aski.

Baina segi dizaiogun hariari. Azken aldan, sarritan batik bat, formaren radikalismoak ia mamia- renak baino inportantzia haundia- goa jokatzen du. Gauza benetan radikalak esan arren, forma esplo- siberik gabe esanez gero, kasi ohar- kabean pasatzen dira. Eta aldre- kes: aspaldiko mila topiko zahar eta zimelek, forma esplosiboan

esanda, oraindik izugarriko tarra- pata sortzen dute.

Gizon bat kalean normal jantzi- ta pasatzen bada, ez dio inori aten- tziorik ematen. Hori bera kaltzon- zilo hutsetan pasatzen bada, aten- zio ematen du: alegia, atentzio gizonak ematen du, lehengo berak, ez (marka oso espezialen bat ez badarama behintzat) kaltzontzi- loek. Baina gizona lehengo berbe- ra da. Bestela "normala" zen gi- zona.


Zenbait eseraren arrazoiak eta arrakasta ez dago honekin zeriku- sirik gabe. Gaur, inor izateko, "po- troak" eduki behar dira (eta ez daduzkanak artifizialak erosten di- tu); beste horiek "puta-eme" ta "alu" batzuk dituzu; hurrengoak "kabroi" galantak, etab. etab. Bes- tek beste, elemento probokatiborik ez da hizkuntza hortan falta. So- bra ez den elegantzia aparte, noski.

Halare, probokaziorik bortitzenak Haranburu-Altunak bota ditu, ez- pairik gabe. Ez dakit horixe bila- tzan ote zuen, baina hori gertatu da. Izan ere, ez da makala muti- ko hauxe, esaten hasita. Istiluak berehalaxe sortu dira, eta ez no- lanahikoak. Gure kultura pobrea da, ez dago dudarik: ez zitekeen hobeto demostra.

Dena den, gure egoerako barruti interesgarrietakoa da proboka- zioen hau, baina hemen ere ez naiz epaitzera sartuko. Probokazioak bat- zutan komenigarriak izaten omen dira, eta beste askotan ez. Askot- an indarrak erretzeko bakarrik dira. Eta haserre sortzeko, lehen- dik guti balego bezala. Guri ko- meni ote zaizkigun ala ez, nola- koak eta zein neurritan eta zein unetan, argitzeko, faktore ezber- din askori begiratu beharko li- tzaioke. Batez ere, egoera osoa juz- gatuz hasi beharko litzake. Eta he- men ez dago hortan abiatzerik.

Baina uste dut, guk gehienetan senari, instintoari obeditzen diogu- la, holakoak egiterakoan. Eta ez arrazoimen kritikoari.

Joxe Azurmendi



Donosti'ko Erri-Etxe'ko Aurrerki Kutxa

EUSKAL IRRATI SAIOAK

Banen baneko azikai Ongarri ta abonoak Belar Zuloak Erosi edo berritzeko diru aurreratzea Baserri, lur-tresnak ta abar Torelavega'ko Perira joan etorriak

Baserriaren alde

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Getaria 10-Urrut. 417751-Etxekoe 422700 DONOSTIA

aristegui hermanos

ZORUAK ETA ESTALKIAK, PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR. GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIK.

ERAKUSTOKIA FUENTERRABIA, 19. URRUT. 11459 DONOSTIA

ERAMAN - EKARRI'ra

AGENCIA

Transportes A L E

EUSKAL IRRATSAIOAK

ERRI GUZURAKO

Urruztegiak: 421369 - 427726

Irteerak: 8 - BONGOSTIA

LIBURUAK

KARDA BERAZ BAZKUNA

Gazteizko Apaizgaitegian sortu zen kultura lanetarako gogoak eraginik 1924garrengo urtean. Ez zen goitik behera ezarria izan behetik gora sortua baizik. Ikasleek sortu ohi zituzten honelako bazkunak, irakasleek onartu besterik ez zituzten egiten.

Honela sortu zen euskal-idazleen bazkuna ere euskeraz ikasteko eta idazten trebetzeko. Aita Kardaberazzen deia entzun eta onartu zuten hortarako: «Euskerak burua jasotzea nai du Jaungoikoak».

Lanik onenak orduko aldizkarietan zituzten: EKINen, ARGIAN eta EUZKADINn. Baina bizitza laburra izan zuen Bazkun honek. 1936ngo ekaitzak desegin zuen.

Baina Kardaberaz hil zela 200 urte zirela eta ostera berritua izan zen 1970ngo urtean. Lehengoak eta beste berri batzuekin osatu zen berriro. Badute apaiz ez direnek ere sarrera. Beraz 1924ean sortua, Gazteizko Seminarioan, Euskeraren alde. 1936an galdua. 1970ean berritua duzu.

Zertarako? Euskera jator batean, kristau-pentsaera barruan lan egiteko.

Ez da urte asko berri zela, baina lanean ari da jo eta ke. Dagoeneko lau liburu ateratu ditu «Kardaberaz bilduma»: «Kardaberaz Aitari Omenaldia», Neurritzia, «Suge Gorri» eta «Ezpalak». «Kardaberaz Liburuxkak» sailean, berriz;



«Kardaberaz», «Ume txikiak zoko» eta «Euskalerrri zaarreko Jainko Txikiak».

Herriari zerbitzu bat egin nahi diote, beren adineko herriari batipat. Pozgarri da benetan bizitzak asko jipoiu dituanak ere lanean ari direla ikustea. Bakoitzak bere erara eta bere saila ondo landuko balu!

Zorionak, beraz eta jarrai aurrera.

IRASTORTZA

Euskaltzaindiaren Batzarra

Joan den martxoko 30ean Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra egin zuen Donostian, Diputazioko jauregian.

Hona hemen batzarrean erabilitako gaien laburpena:

Aita P. Altuna euskaltzain laguntzailearen eskabideari men eginez, argitasun hau ematea erabaki zen: Etor-ek argitaratu duen adiztegiak ez dioela Euskaltzaindiarena dela.

Jose Estornes Lasa euskaltzain laguntzaileak egindako idazkiari erantzuna eman zitzaion: Arantzazuko Agiria orain indargabetzeak ez dirudiela mugoneko, batez ere 1920ko, 1954eko eta 1968ko Agiriak kontuan edukiz; eta era berean euskeraz argitaratzen diren liburuen estadiari begiratu; eta, azkenik, eskaltzailearen idazkian nabari diren prozedurazko hutsei ohartuz.

Goizean euskaltzain osoen artean egindako bilkura bereziaren kontu eman zen. Euskaltzain laguntzaile eta ohorezko berriak izendatzeaz izan zen bilkura hura.

Aita B. Gandiaga euskaltzain laguntzaile eta olerkariak txosten interesgarri bat egin zuen, berak Oinatiko Araotz-en bildutako kanta zahar batzuetaz.

Beste txosten bat irakurri zen, Aita P. Larzabal euskaltzain osoak egina: «Euskaldunak zer begiz dituzten Abereak ikusten». Txosten honetan abereen mundutik hartutako izen, ezizen, esaerak eta abar aztertutako ziren, euskaldunren psikologia eta mundu-ikuskeraren alde honetatik argituz.

Xabier Kintana euskaltzain laguntzaileak prestatutako Denda Izendegiaren azterketa egin zen. Oharririk gabeko izenak onartutaz eman ziren. Besten azterketa erditaraino edo egin zen, gainerakoak hurrengo baterako utziz.

Apirileko lehen astean bilkura bereziak egingo dira Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean, euskaltzain oso eta aditz batzordekoen artean, aditz batzuen bigarren zatia aztertu eta onartzeko.

Apirileko batzarra Gasteizen egingo da Juan Bautista Gamiz sabandotarraren berrehugarren urtea ospatzeko.

(Euskaltzaindiaren Prensa Bulegoko Agiria)

MUSIKA

elektronika musika donostian

Musika tresna berriak eskatzen ditu elektroni-musikaren izaera berriak: «generadoreak, grabadoreak, reproduktoreak» eta abar. Denak berriak eta garestiak. Musika berri hau aurrera ateratu nahi dutenek, beraz, zailtasun handiak aurkitzen dituzte. 1965garrenean jarri zen Espainian era hontako laboratoriorik bakarra eta bera nahiko kaxkarra. Felix Huarte nafarrak egina da. Honen herioterako sortu zuen Luis de Pablok «Oroitaldi». Madrilgo (Alea) taldeak erabiltzen du.

«Moog» bat edukitzeko zoria du Donostiak. Madrilgo «Alea» baino askoz ere hobea da. Donostiakoak milioia eta gehiago balio du. Madrilgoak berriz, ez ditu berrehun mila pezeta balioko. Era guztietako musikarentzat balio du «Moog» honek. Hotsak goxatu, ugaltu, indartu, era guztietako hotsak: garraxi antzekoak, daidaratia, goxoak...

Euskal musikaren zerbitzuan jarri dute delako «Moog» hori. Baina musika alorrean dabilten guztiek erabili dezakete. Jende gutxi inguratu da oraindik. Are gutxiago beronetaz baliatu.

Donostia bakarrik da «Moog» baten jabe. Ez dute honelakorik Espainia guztian. Baina ez da aski edukitzea. Baliatu egin behar dugu beronetaz. Hontan «Conservatorio de Musica»k izan behar luke ispi-llu. Ikastaro bat ipini behar luke elektronikazko musikarako, «Moog» hortaz behar bezala baliatu gaitzen. Ez diteke hain indarrean datorren musika berriari atzera gera gure «Conservatorio»-a. Iruneakoak orain dela hamar urte jarria du elektronikazko musikarentzat gela bat,

baina hutsik dago ez bait daukate guk bezala hortarako tresnarik. Guk berriz inork ez bezalako tresnak ditugu eta alferrik dauzkagu.

Musikagile aurrerakoi eta musika berriaren zale direnak ari dira poliki-poliki «Moog» honengana inguratzeko. Ikusia eta goraiatua dute Larrauri eta Isasa. «Moog» hontan burutu zuen Larraurik «Munduak» deituriko bere azken lana. Larrauriren «Contingencias» eta «Ezpatadantzak» ere egiten ari dira. Baita Tomas Marco-ren «Agur, Gerardo» ere.

Zalantzarik gabe asko erraztuko dizkie «Moog» honek bideak gure euskal musikagileei. Kezka aurrerakoiaren iturri bihurtu behar du Donostiako «Moog» honek. Gure esku dago.

«MUNDUAK»

Hau da Anton Larrauriren azken umea. Izar arteko giroan murgiltzen da. Egokia benetan izar-bidean dabilen gaurko gizonarentzat.

Ez gizona eta ez emakumezko ez diren izakiak dabilta egan luraren jira-biran. Lurra bihotz gabeko mundu hotza da. Gutxi argitzen du eguzkiak. Nola bizi giro hontan?

Lur-gizon baten bidez bidaltzen die goikoerri erantzuna lurak. Izar-tegi osoko, ortzi osoko ibiliaz eta hotsez elkartzen da.

Eusebio Erkiagaren poeman oinarritzen da.

Hau da lur arrotza! Eguzkia hotz eta argi gabe garia ezin erne. Gatzik ezta.

Nolako lurra, nagoen hau! Bizi gabe bizi naiz.

Dagoen haize puxka, bakandurik dago eta gorrototsua, itoko ote nau?

Sortu ninduanaren begiak dira argi, harek emana haizea. Haize garbia ta argi nirea.

Iskillu latzen aho gorrotoan onduak. Aurrekoa, anai ona, hilko baitu, hilko ote du?

Eta odol gorria, lurra beltz egongo duzu ez da izango garirik, ez maiterik.

Galdetu diet gizaki guztiei: nun maitasuna? nun Jainkoa?

Amatxo guztien begi xamurretan erantzun soila, eta umeen eskale-begi argi zorrotzetan.

Sortu ninduanaren begi dira argi ta arnasgei dudana haize haize ta argi amarenak haize ta argi amarenak ditut nabari,

Anna Ricci-k, musika aurrerakoiaren soprano onenak, bidaltzen ditu lurreko berriak. Donostiako «Moog» hontan eratu da obra hau. Gure elektronikazko tresna honen asikin jatorra dugu, beraz.

Jose Luis Ansorena

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserriar burutsuak, Berebiziko aragi pitlak; gañera esne putzuak, Otek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

FAGOR

edaria epela dagola? FAGOR'ek oztuko du bereala



DEPURACION DE AGUAS S. A.

Ur lanetan eta zereginetan berezia edangarri, lantegiko eta igeritako urak gertutzeko zikindutako urak garbitzeko.

Urrut. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01
Garduniz, 44

BILBAO

IRAKURLEAK MINTZO

Leenengo, nere burua aurkeztu nai dut; 36 urte ditut eta ezkontuta nago...

Areago, teleikuskiña duten etxeetan, zeinrentzat ekarri zuten geienbat...

Beraz, gaur Euskal Herriak badu aukera piska bat euskal gai...

Adibide batzuk jarriko ditut: Ikastolako irteran, gurusoak joaten gera...

Donostiako elizetan, amabietatik ordu bata eta erdiak arte, 40 meza ditugu...

Ikastolako batzarrak zela egun batean eta teleikuskiña zer edo zer zegoelako...

Lerro aukerak ez ditut inori miñik emateko asmoarekin egin...

Emendik agurtzen zaitut «Erne» jauna; elkar ezagutzeko gogoia badut...

B.A.T. (Bergara)

mallabia

Badira hiru lau hillabete atal hontera ezer ez dudala bialdu...

Egia esan ez dut zer esan haundirik arkitzen Mallabian...

Hori dala eta, herriko barri ttipi batzuk eman ondoren...

Urtarrilean hasteko ziren eskola barriak, eta gehienetan gertatzen dan bezala...

Jaiak antolatzen dituen gazte taldeak ensaiu eta batzarrak egiteko...

Mallabiak hartu-emon gehien dautan herri hoietako bat Ermua da...

Hogei mila bizi-lagun inguru dituen herri honek...

Errez ikusi dezakenez inon baino herri kultura falta gehiago nabari da...

Badira bost edo sei talde ezberdin hainbat gauzatan ari direnak; batzuek jan edanetarako...

Dena dela ez dut ikusi oraindik programaxo bat ere euskeraz. Babiliteke izatea atzerritar asko...

Baten batek esan du hor zehar atzerritarrei esker gure herria kontzientziatu dala...

Mallabian be badirela problema esango du ermuarren batek eta ez du arrazoirik falta...

TXURRUKA

Beasaingo Ikastola

Datorren Ikastoroan (1973-74ean) beren haurrak Beasaingo Ikastolara bidali nahi dituztenek...

Hau, datorren Ikastoroako ditugun beharrak jakitzearren egin nahi da...

BEASAINGO IKASTOLA-ZUZENDARITZA (JUNTA)

aiete

HITZALDIA

Duela egun batzu, Ezi-Toki klub delakoak ziklo bat izango denaren lehenengo hitzaldia antolatu zigun.

EZI-TOKI

Klub honek, duela gutxi, billera nagusia egin du eta bertan harturiko erabakiak...

Bazkide emeak billera nagusietara joateko eskubidea eta bertan botoa ematekoa eskatzea.

Billera nagusietan parte hartzeko adina edo edadea 18 urtetara jaxtea eskatzea.

Aiuntamentuak egin behar dituen obrak funtsezkoak izan ditezela eskatzea.

Aieteko Elkarrekin hauorako pilotaleku itxi bat lortu behar duela eta hortan saia dedila eskatzea.

Komentario txiki bat orain. Klub honen izena Ezi-Toki da. Izen polita benetan. Habituak ez du...

Beste askotan bezala, lehenengo batean ere Manterola liburategira ioan ginen...

EUSKAL HERRIARI BURUZ LIBURUAK

Errenteriako euskal astearen (diogun bikainaren) azkenean gertatua. Hain zuzen larunbat gaueko...

ZENBAIT PROBINTZIA GERA?

Errenteriako euskal astearen (diogun bikainaren) azkenean gertatua. Hain zuzen larunbat gaueko...

TXERTUBI

beasain

DANTZA LEKU BERRIA

Lehen LOREA izenez ezagutzen den dantza leku bat genduen Beasainen. Orain (Santa Agedaz gero...) beste bat ireki zaigu...

ERESKA

Izen honekin ireki berria da baita ere, halako denda-gela toki apain bat. Gorputzaren itxurak zaintzeko...

JAI NAGUSIETARAKO

Herriko jai nagusietarako egitarau antolaketa eta beraren beteitzean parte hartu nahi duten guztiak, bilerak bat egin berria da...

baldin eta aurreko bi urtetakoaz oroitzen bagara behintzat eta jendea lanerako gogo berdinarekin aurkitzen bada.

GARIZUMA

Aurten ere, aurreko urteetako ohiturari jarraituz, Beasaingo Andre Mariaren parrokiaren gogojardun saio bakarra izan da euskeraz...

BAHITUAK

Azkeneko zenbait gertakizum dela bide, gure herritar batzuk ere, bahituak izan dira. Herrian guzti...

ARGI-INDARRA

Jakin ahal izan dugunez, herriko muinetik at dauden etxe eta faserri batzutarako argi-indarra...

SAN MARTINGO BASELIZA ETA ETXEA

Igaz bigarren parrokia bihurtu izan San Martingo Baseliza eta etxearen jabeagoa bere inguruko...

MURUMENDI

olabeaga

Behar bada, gutxi ezagutzen dogu Bilboko hauzune hau; izan ere txikia ta kaskarra dogu. Ezaguna, izatekotan ere, bertako itsasontzi...

Hauzuneak bostehunen bat familia batzen ditu, zeharo sakabanatuak heurak. Nerbioi bazterreko mendi...

Hauzune soil bat izan arren, oraindik ere badau, neurri baten. Orain urte batzuk arte, goitik behar...

Bestalde, hauzune honek problema astunak ditu, batez ere hurgintza aldetik; karretera meharra, ezinbestean, ta troka mailaz bete...

BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK ETA EDARI GUZTIETATIK

Blas de Lezo Kalea, 6 Urruzizkifia: 41 20 65

DONOSTIA

JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4

DONOSTIA

OLAKOIA

bazkari onaren zarpagarria eta txarraren estalgarria



ON KOSMEREN GURUTZ BIDE XELEBREA

—Zer egiten duk, Joakin? Zeruko Argian aspaldion itz bat ere ez?

Udaberriko epelak kaleratu nauanean, orrela mintzo zaizkit adiskide batzuk.

Txarrean, ongi naizela adierazteko, zerbait idatzi egin bear. Auzen da lana! Txokorik ba ote nerretzat Zeruko Argian? Gai sakonetan ezin murgildu neure burua. Gure orde, Jaunari esker, Erligio gaietan badatozkigu Maixu argiak. Bejondeizula, Jexux Mari. Zure ondoren beste gure jakintsuak etor bitez eta guzien artean edozer gaitarako balio dezala gure euskerak.

Nik zer esan, ordea? Zertaz idatzi? Alaitasun pitin bat eman aal banezaio Zeruko Argiari. Astuna, serioa, irripark gutxikoa arkitzen dut aspaldion onetan. Garai latz eta triste auetan ezin gintezke beti gure arazo aundien zurrunbilloan estu igerika bizi. Atsedean pitin bat, deskantsu apur bat bear degu. Algara ez bada ere, irriparko bat leertu aal baneza nere irakurlearen espaietan... esterik ezinean, asmo orrekin natorkizue. On KOSMEREN bizitzako gertakizun batek edo beste alaitu beza geiegiatan atsekabea daukagun gure biotza.

—oOo—

On Kosme gizaajoa! Negu erdi aldera oeratu bearrean arkitu zan. Leen goak ez nunbait aski eta gripe txarrak bete betean arrapatu zuan. Gaitza bota ezinik, Garizuma Santua eldu zitzaion. Oean zegoala bere kolkorako izketan asi zan: "Kosme, Kosme, ire buruarekin erraxegi aserretzen aiz. Besteri bai esan Jaungoikoari eskeintzeko, Kristok gurutzetik bezela, ire nekemiak gizonen alde. Ta orain, zer egiten duk? Garizuman gaudek. Ostirala duk. Ez alde Gurutz biderik egin bear?"

On Kosme bere buruaz lotsatu zan. Bere barne-kontzientziaren salaketak, on egin zion. "Bai, bai, egingo ditut ba Kalbarioak. Giza bizitza gurutz bide bat baizik ez da beintzat eta. Leenengan (Jaiotegunean) iltzeko epaituak gelditzen gera. Azkenengan illobiratzeko gaituzte eta kito."

Egonaldi-Estazio batzuek apartekoak izan ziran:

IRUGARREN EGONALDIA: Leenengo aldiz Kristo lurrera: "Erori duk" Erori duk", jendeak deadar egingo zuen noski, Kristo. Kementu eta indartsua uan, baiña lurra jo dik; indarrak joan zaizkiok. "Naiko lana izango zuten soldaduak jendea zure albotik baztertu ezinik".

A Jauna, orixe bera gertatu zitzaidan neri. Gizon bulartsu eta indartsua nere biztza guzian. Eun kilotako gizona. Igerilari onentxoenetakoa. Osasuna saltzeko zeukan Kosme, leenengo aldiz gaitz txar batek lura jo erazi zion. Ta zenbat jende nere inguran. Eliz Barrutiko jende aundiena Kosmeren oendor: Obispo, Bikario, Euskal sorotako langille aundientxoanak Nor ez? Arroputz eginik nengoen; banauk norbait. Merezi dik, Kosme, orrela gaxorik egotea. Ez aiz nornai. Ta... Jesus, arrokeriazko pekatuan erori nintzan: "DAMU DET, JAUNA ZU NAIGABETUA, IZAN NERE EREUKIA".

ZAZPIGARREN EGONALDIA: "BERRIRO KRISTO LURREAN". Jesus! Zure bigarren erortze orrek ia inor ez zuen arritu. Jendeak begiratu aundirik ez zizun egin. Soldaduak jende baztertzan lan aundirik ez zuan izan. Ez zan ez gauza arrigarria bigarren zure lur jotea.

Ai Jesus, Ni ere bigarren aldiz gaixorik erori naiz. Luzaro nago lur jota. Bigarren gaxoaldi au ez da izan nerretzat ain apain dotore eta burgesa. Num dira leengo nere Bisitalariak? Num diran On Kosmeren ainbat eta ainbat adiskide eta lagun? Zerbait intzalakoan, Kosme? Gaixoa, aspergarri duk! Ez duk balio, sasoiak galdu duk, makurtu zak burua.

Bai, Jesus, bai, Zuri baiño geiago gizonen lotuta nengoen. Ta nere gaixoaldi onetan bein baiño geiagotan gizonentzat desprezioa sentitu dut. DAMU DET, JAUNA.

BEDERATZIGARREN EGONALDIA: Irugarrenez Kristo lurrean. Zure kutunak, Jesus, zu orrela sufritzen ikusita, zurekin kupitu egin ziran; Noiz bukatu bear ote dira

neke oñaze auk? Noiz Aitaren besoetan atsedena jaso?

Jesus, Jesus, Kosme oraindik ez da erori irugarren gaixoaldian. Luzaroko balitz, dardarka jartzen naiz, nere kutunak ere nereganako maitasunez eta guzien onagatik aspertu egingo baitira nere gaitz luzeaz. Orduan, orain eta beti erruki, Jauna. DAMU DET, JAUNA. **AMALAUGARREN EGONALDIA:** Jesus illobian. Kaskarra zuri egin zizuten entierroa. Benetan arlotea. Gure artean, sasoi batean, laugarrenengo maillakoari ohea egin oi zitzaion. Nikodemus zaarra. Juan txo apostolua, Arimateako Joxe. Emakume negarti batzuk. Presa zuten, arranopola, zure gorputza illobiratzeko. Eztako justiziarik gizonen artean. Inork merezi bazuen Entierro bikain bat, Zu ez al ziñan bada? Egun batez apapa joaten danean On Kosmeri ez diote nolanaiko illeta egingo. Jesus. Zen-

bat jende, apaiz. Zurearen ondoan bikaina izango da. Etsairik izan badu ere, azken orduan Elizkizunean bilduko dira. Orrelakoxe paragarri eta justizi gabekoak dira gizonak. Merezi gabeko laudorio eta goramen aundienak jasoten dituzte gure artean. Erruki gaitzatu, Jauna. DAMU DET.

—oOo—

Bat batean, Kalbarioak amaitutakoan aserre bizian jarrita oiuka asten da on Kosme": "Zein fraille Buru aundik egin ote zituen Kalbarioak? Gurutz-Bidea illobian amaitu? Illobian bukatzen dan Aste Santu eta Kalbarioak ez dute zentzurik. Amabosgarrena bear zuen Gurutz bideak.

—Amabosgarrena, On Kosme? Diotsa bere mirabe Kaxildak. Leenengo jende gutxi dijoala elizkizunetarata, luzeago eginda joango diralakoan? Sukarra-kalentura igo zaizu, orain ere, On Kosme. Jar dezagun termometrua.

Kalentura artu bitartean, marmar bizian jarraitzen du On Kosmek: Moztu, nai diran aña Kalbarioak, baiña beti azkenengoak izan bear luke: Piztu da Kristo. Piztu da Kristo. Zertarako ditut nere naigabe, nere bizitzako gurutz-bide latza Kristoren piztuera ene begien aurrean beti ez padut? Uti-

kan Piztuera gabeko Kalbarioak. Kristorekin sufritu eta Kristorekin il eta piztu nai du On Kosmek. Entzun aal dezu, Kaxilda?

—Kaxildak termometroari begiratuaz: Ernio mendi puntaraino igo zaizu orain ere kalentura, On Kosme.

—Zenbat daukat ba?


—Obe egingo zenduke, bear bezela amaitu zure Kalbario oiek. Kristoren bost zauriren izenean bost Aita Gure falta zaizkizu.

—Kaxilda, Kaxilda, ez nazazu nere onetik atera. Zer kalentura daukadan jakin nai dedela!

—A... Induljentzik irabazteko Aita Santuaren asmoetarako Aita Gure batekin bukatu bear dezu.

On Kosme izerdi larritan gelditzen da; Marmarreen loak artu du. Induljenti aundirik ez zuan noski irabazi.

AROSTEGI'tar Jok



Zure salmentak ugaldut ditezke



Salerosketarako diru laguntza

Zure salmentak era askotara ugaldut ditzakezu. Zure denda aundituaz eta eraberrituaz; bertako salgaiak aukeran eta gaurkoak ipiniaz; denda berriak zabalduaz; garaian garaikoari begiratuaz; bear den neurrian berriatuaz... Ots, zure denda gogozkoa eta atsegina izan edin bearrezkoa duzun guztia eskuratuaz.

Zure denda osatzea, indartzea, aunditzea, dela eta... kezkatu bazaude, zator guregana, bear duzun argitasunik eta laguntzarik jasoko duzu.

SALEROSKETARAKO DIRU LAGUNTZA onurakor eta komenigarri izango zaizu, benetan. Zure kezkek uxtzeko asmatu dugun zerbait bait da.

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA



ELIZAREN BERRI ELIZA KRISIAN

GIPUZKOAN, APAIZ-BATZORDE NAGUSI

BERRIA: HIRUGARRENA (Presbyterium)

1. ORAIN ARTEKO BATZORDEAK. Ezin hasiko naiz, hemen, Apaiz Batzorde Nagusia teologia aldetik arakatzeko. Esan dezadan soilki, II. Batikano kontzilioak eraginiko ekintzabidea dela.

Halatan bada, Gipuzkoan lehenbizikoa 1967ko otsailaren 16an eratu zen, urte bete iraunen zuena. Bigarrena, berriz, 1969ean eraiki, eta 1972ko urtarriaren 11an amaitu zen.

Bi Batzorde Nagusi horien historia interesgarri litzazuke, noski; baina, horretan geratu beharrean gara, zeren tartean ibili izan direnek ongi zilatutak bait dituzte espainak. Halarik, alderakoi samar eman zaizkigun antuste giroko iritzien ondoan, batez ere bigarren Apaiz-Batzordeak, iritzi apalagoetarako aztarrenik nabari dugu, lerro tartean edo irakurriaz; frogabide bakar bat harrotzekotan, esan dezadan, oraingo honetan, hirugarren Apaiz-Batzorde Nagusi honetan alegia, oso jende gutxi izan dela bñ-aureratu. Horrenbestez ez nuke hankaz gora bota nahi irizpide baikor hutsetan gozarazi nahi izan gaituztenen jarrerarik; baina, alderantzizkoa hartu dutena ere haintzat hartu nahi genduke.


2. HIRUGARREN APAIZ-BATZORDE NAGUSIAREN GERTUKETA. Edonork sumatzen du jadanik joera deberdinek apaizen artean. Hona bada. Hauteskunde eguna (1973ko martxoaren 23a) adierazi zenetik, sortu zen mugimendurik apaizen artean: Hermandad de San Ignacio delakoa zela, Tolosako taldea zela, e.a. (Begi bistakoa da, azken 5 urteotan apaiztuek ere, gero esanen dugun jarrera denek batera hartu ahal izateko, mugimendurik ukan zutela). Arazoari, garrantziarik eman ez dionik, edota jaramonik egin ez dionik ere izan da, noski, % 18k ez bait du hauteskundean parterik hartu.

Bestalde, Apaiz-Batzorde Nagusiari buruz apaizak mentalizatzeotan harrotu diren ideiak ere aski interesgarriak dira. Esanen nuke, hein batetan, gorago irristadan aipatu dudana eta bigarren Apaiz-Batzorde Nagusikoan nabaritu zen prolematika islatzen edo reflejatzen dutela ideia horiek.

Alde batetik, guztiok fede bakarra dugulakoa azpimarratu da lehiatsuki. Horrek, noski, bigarren Batzordekoa baino zabalago den prolematika adierazten du. Dena den, funtsean kristau batentzat ezinbestean onartu beharkeko delarik ere, ideia hori haragintzea, ez du ematen, azaldua izan zen eta azaltzen den bezan gauza ximplea denik. Fede batasun hori —nago— idealista samar ez ote den hartzen; ez ote den, askotan, "batasuna" ez hausteagatik ezer egotetik atzerazten duena; ez ote litzakeen, horrela, Eliza, loka-puntuari ipinitako motorra: bere run-run run-run nagiz eta aspergarriz bizitasunezko orde lo-harrerazle litzakeena.

Bigarren eta hirugarren ideiak elkarri uztarturik ikusten ditut hondo-hondoan: Batzarkideak, erabakitzaile ez baina aholkulari huts direlakoa hainbat lerropetzea alegia, eta batzarkide hautatua izan dena ankeratzailei buruz arras bere eskuko dela esatea.

Esan daiteke, planteamendu horren arabera, nor bakoitzaren kontzientzia-moldaketan elkartaren kontzientziak zerikusirik ez lukeela; horrez gero, sustriairen ez ote da indibidualismo bezaleko zerbant? Dena den, ez da ageri hor nor bakoitzaren kontzientziaren eta elkartaren kontzientziaren artean behar lukeen tirabira jator eta errealistarik.



3. HAUTESKUNDEA. Gorago esan bezala, hauteskunde egun bezala, martxoaren 22a hautatu zen. Eta hartan egin zen bozketeta.

680 apaizetatik (zenbakiak zehatzak ez baina hurbilekoak dira) 560ren batek parte hartu zuen.

Arautua zegoenez, arziprestazgo bakoitzeko ordezkari bat hautatu behar zen, batzarkide izan zedin (maila honetan hautatuak izan zirenak, alde handiz atera ziren gehienak; Tolosa bailaren, halere, lehenbizi eta bigarren atera zirenek alde gutxi izan zuten: 23 eta 20 boto); dioesia mailan, 6 hautatu behar ziren (statik 5, Tolosako taldeak proposatuak atera ziren, eta 1 Hermandad de San Ignacio delakoak proposatuak); Kanonigoek Enrique Vivo hautatu zuten; Seminariokoek, berriz, Inazio Altuna; apaiz-erlijiosoetatik 3 hartzen dira (hauen hautatzea gainerakoena ez bezala egin da nonbait; hautaketa honetaz honela irakurtzen ahal dugu Araupidean: "Eliz-barrutian bizitzeko bizi diran apaiz-erlijiosoak, hiru batzarkide aukeratuko dituzte beren artean, Eliz-barrutiko Federazio-Buru danak mugatzen dieten eran"; horri buruz, ezin atera izan dut, ez nola egin den hiru batzarkide berrien hautatzea, ez nor eta zer den Eliz-Barrutiko Federazio-Buru delako hori; haxe bederen garbi dago: apaiz-erlijioso guztiak ezin eman ahal izan dutela botorik, 1969koan eman bazuten ere); hautatzeko, Gotzai jaunari dagozkion seirak falta dira.

Azkenik, hauteskundean parte hartu ez dutenen arazoa geratuko litzake. Honi buruz, ez daiteke esan, botorik eman ez duten 120ek homogeneitate osorik burutzen dutenik: nor edo norentzat, botorik ez emateko arazoina, batzarkidegaien artean "pentsalari-rik" ez zegoelakoa izan da; gorago esan bezala, elkarrekin bat eginik, azken bost urteotan apaiztuek er ez dute botorik eman (batasun horretara heltzeko, beren planteamendua egin bide dute); beste norbait, botorik zergatik ematen ez zuten galdetzean, emateko arazoinik ez zuela ikusten erantzungo zizun.

Hondo-hondoan ez ote da ustepide hau nagusi botorik eman ez dutenen artean: erantzumen baten premian dauden arazoak, apaiz mailakoak ez, baina Jainko herri mailakoak direla, eta, horrez gero, kristau herri mailako egitura beharko litzakeela?

AMUNSA

Eliza historikoa bada, Eliza konkretoa da. Eliza tradizio baten gourdairu da, genion. Eta batez ere tradizio baten osotasun eta egia-bihurtze. Zerbait bizia da Eliza. Eliza martxan doa. Eliza ez dago geldid. Aurerra doa eliza.

Zerbait bizia den edozerri gerta dakiokkeen bezala, egungo Eliza konkretoa, ez abstraktoa, krisian dago. Eta ez nolana hiko krisian. Oraintxe irakurtzen diot Oskar Schröder'i: «Elizarentzat iritxi da bai hala ezko ordua. Baldin eta Elizak Erdi-aroan zehar eraikitako agintarismoari uzten ez badio, eta demokrazi bideari gogoz heldu, baldin eta Elizak bere burua «societas perfecta» (gizarte osotu edo erabatekoa) bezala ulertu beharrean, munduarekiko duen lotura eta zerikusia behin betikoz garbi agertzen ez badu, bere izatearen premiarik ez dio egungo gizonari agertaraziko».

Krisi honen barruan gaude gu eliztarrok ere. Oso-osoki. Krisian gure giza-tasunean, krisian gure mundu-ikuskeran eta gure lan eta produzio harremanetan, krisian gure herritasunean krisian gure erlijiosotasun eta eliztasunean.

ELIZA EBOLUZIOAREN FRUITU

Eboluzio edo bilakaera hitzari beldur gogorra izan dio Elizak. Eta oraindik ere zenbait mailatan hartan jarraitzen ote duen deritzat. Jakintzuek gizona bilakaeraren fruitu zela irakasten zirenean gogor heldu zion Elizak ezezkoari. Plazaturiko arazoiek bururik gogorra bera ere bigundu zutenean onartu zuen Elizak.

Eliza bea ere eboluzio baten ondoren daitekeala entzuteak; (ikusteak esango nuke nik), ez digu kristauoi grazi handirik egin izandu. Guzia hankaz gora ote doan susmoa edo sartzen zaku nunbait.

Eliza, guk, guziz Jainkotiar nahi genduke. Munduko burruka, tipitasun, eskastasun, ezin eta bilakaera arriskugarriaren arriskuetatik landa. Kondairaren zehar Eliza horrela ulertzeko joera asko izan dira.

Hau egia balitz ordea, hitz bitan esateko, Elizaren egin lukea esan behar. Joera honi bere azken ondoretaraino jarraitzen dionak, berehala jasoko luke eliztar izatea ezinezko ote zaioren susmoa. Gizon historiko, hots, gizon edo eliztar, bietakoren bat izan beharko lukeala.

Aldakortasun hitza ere sona txarrekoa da eliz hiztegiatan. Eliza ez da aldakorra entzun izan dugu askotan. Aldakortasunari giza-kutsu gehiegirik arkitzen diogu nunbait.

«Aldakortasun» hitzak, egia esateko, badu gure herri hizkuntzan halaholako-nolabaiteko esanahia. Gizon aldakorra apirilko giroa bezalakoa da. Ez da gizonak bizkarrean «satisfetxo» erabiliko lukean txartela.

Aldakortasuna filosofia mailan ulertzen badugu ordea, bilakaera bezala alegia, giza-tasunaren muin-muinarekin jotzen dugu. Aldakortasunak aldatu ahal izatea adierazten digu. Aldatu ahal izateak berriz, gizapositibitate —eta arrisku— guzien karkoa. Gizon izateko aukera. Askatasunera-ko baldintza.

Elizari ere bere aldakortasunak, bere eboluzio posibilitateak, irekitzen dizkio bere Eliztasuna gizartean eta munduan egiztatzeko ate guziki. Hau ezean ez dezake ahal munduan Eliz izatea, sinesmen elkarte gertatzea egungo sinestunentzat egungo elkartetza egiztatzeko joatea.

Elizak bere jokoaren aldakortasun hori gaizki edo hobekiago, gutxi edo gehiago izan duenik ez dago ukatzerik. Behar haina ez, dionak ere, arazoak luke ziur aski. Baina nork uka aldakortza horiek gertatu direnik. Egungo Eliza, lehen kristauen elkarte haiek in alderatuz gero gauza konplexioa nabari da. Itun berrian jaso dugun Elizaren lehen hirurogei urte-tako kondairan bertan agertzen da eboluzio hori garbi.

Esan beharrik ez dago, Elizaren bilakaera gertakizunaz mintzatzera-koan beharrezkoak direla zenbait bereiztapen. Jainkoaren Errebelazioetik jaso duen sinesmenak ematen dio Elizari bere izate arazoak guzia. Hortan badu beraz muga nagusi bat bere aldakortasunean. Muga hitza ez da oso egokia. Hau bakarrik esan nahi dugu: sinesmen hori gabe Eliza ez litzakeela Eliza. Bere aldakortzak ez lirakeela ez egiztatu, ez eboluzio ez osotasun bide.

Sinesmen hori jaso duen Eliza, sinesmen berean jarraituta ere, historikori argitzen eta egiztatzeko doa beti. Elizak ez du behin ere egia hau ukatu. Ez ukatetik onartzera bada ordea biderik. Onartzetik onartzera ere bai. Onartu izan ditugun zenbait gauza gure kontzientziapen galduta geldid ditezke. Horrela Elizak franko sarritan bere historikotasun eta leku-kotasun hori —duen arriskuagatik edo— kontzientziapen ahantz arazi duela, esango nuke nik.

Gaur Eliza hortaz jabetu da berriz. Aldatu beharrean beharrik jabetu arazi du. Munduaren aldakortza izgarriak sortarazi dion aldatu beharrean beharrik.

ALDATU BEHARRAREN KONTZIENTZIA

Elizaren egungo krisiak mila arazoak ditu. Aldakortasunaren kontzientzia hau kristauetara zabaltzea da arazoak horietako bat. Eta ez txikiena nere ustez batez ere. Eliz mailan sortzen diren prolemekiko.

Aldakortasunak kritika berekin du. Eta arrisku-kontzientzia ere bai. Kristauok ohituegi geunden geure sinesmena ziurtasun mailan bizitzen. Eliza, bere-bere bihurtu zuen kulturari itsatsirik, ziurtasunera eta betikotasunera ohitu zen. Kristauak esaneko izan besterik ez zuten. Jainkoa nun arki. Elizak esaten zion. Errez eskura zezakean.

Gaur besterik da. Eliza larri dago. Kristau xek galderak dauzka. Hitza eskatu du. Hitza denen eskubide den lekuetan gertatu ohi denez, iritzirik ugalduegin dira. Jokabideak ere bai.

EGUNGO ELIZAREN AZTERKETA

Egungo Elizaren izaera eta egoerari buruz azterketa-urrats batzuk ematen saiatuko gara. Eliza egiten joan dela eta egiñaz joan behar dugula sinestuz ekiten diogu. Elizaren erakunde, ohitura, erakutsi, eta batez ere, eliztarren sinesmenaren —ez egia-zerrenda hutsaren— azterketa, historiko ikuspegiz egin behar delakoaren uste osoz.

JEXUX MARI MUJICA

BIDE BERRI BAT ELIZ EKINTZAN: AIETEKO "GURUTZIAGA"

Berritze lanak bukatu ondoren, datorren Igandean Apirillak 15, Erramu eguneko eleizkizunakin berriro zabaltzen da Aieteko eliza. Berritua izan dan XVI garren gizaldiko Gurutze irudi aipatua, gordetzen duana.

Erramu Igandea ondoren, donostiar euskaldunen artean, hain onartuak izan diren euskeraz egindako Aste Santuko eleizkizunakin, jarraituko dute.

Maiatzaren erdi aldean, eliza zabaltzearen jai nagusiak ospatzekoak dira. Baita, "Gurutziaga" izenakin ezagutuko dan eleiz ekintza berri bati asiera eman ere.

"Gurutziaga" izenakin ezagutuko izanen dira, danen zerbitzurako dauden parrokiak, Oblatas lekameen etxea, ikastola, erietgia, bizi-lekua eta abar...

Aste Santuko ospakizunak izanen dira:
Ostgunean: arratsaldeko 6,30 etan
Ostiralean: arratsaldeko 5,30 etan
Larunbatean: gaueko 10 etan

BAR - RESTAURANTE

AURRERA

HAUXE DUZU ZURE JATETXEA

Urbietan, 12

Urrut.: 411528-412578

— DONOSTIAN —



HAURRAK MINTZO

Ikastolari eskaintzen diogu orrialde hau. Ez astero, noski, baina berea izango du ahal den guztian. Ikastolako haurrak, irakasleak, gurasoak eta laguntzaileak mintza ditezke bertan.

Gaurkoan Zarauzko haurrak mintzatzen zaizkigu. Hurrengoan beste herriren batekoak izango dute idazteko aukera.

Badute haurrek ere zerbait esateko eskubide. Haundioi bururatzen ez zaizkigun gauzak bururatzen zaizkie. Asmamen eta irudimen bikoak ditugu. Era askotara agertzen digute beren barria.

"Haurrak isilik oloak pira egin arte" esan ohi zitzaigun guri. Arren ez ditzagula isilarazi, "harriak ere gure aurka hizketan hasiko bait zaizkigu". Utz dizaezgun hitzigiten. Ikus dezagun nola duten aurreratzen. Buruz edo memoriaz guk hainbat gauzatzu ikasten ez badute ere, gu ez bezala ari direla argitzen eta gizontzen ikusiko dugu.

Baina orrialde hontan ez dute haurrek bakarrik hitzgingo. Badute irakasleek ere zer esana. Hauen lanak ere argitaratu ahal izango ditugu. Berauen iritziak, kezak, ezinak, ahaleginak jakin ahal izango ditugu.

Gurasoek ere badituzte esan beharrezkoak. Ez dute isilik egon behar. Barrua hustu behar dute. Beren eskarmentu jakingarria azaldu. Aurkitzen dituzten ezinak, oztopoak, okerrak esan. Beren usteak eta iritziak agertu.

Interesgarria da laguntzaileen iritziak jasotzea ere. Herriarena eta herrikoia izan behar du ikastolak. Euskal-indar guztiek jaso behar dute.

Onez onezko iritziak eskatzen ditugu. Ez dio desberdin izateak axolarik. On da iritzi-trukea. Zipozkeria eta setakeria da txarra.

Ikastola askok parte hartuko duten ustean gaude. Ikastolarekin zerikusia duen jendea eskaintzen zaion orrialdea duzu.

Idatzi eta bidali zure lanak. Elkar aberastuko dugu. Elkarri asko lagunduko diogu. Pozgarri zaigu denoi, bestetan zer egiten den jakitea.

Begi eder . goseok,
ase zakidate!,
inon ezpaiditake
ederrrik, au beste
LIZARDI



AINGERU BELTZA KRASH!

Behin aingeru oso bihurri bat bizi zen zerruan, eta pentsatzen zuen:

—Neretzako margo beltza da politena eta urdina itsusia.

Eta zerua beltzez margotzea burura zitzaion; bainan Jesusek errita egin zion, eta esan zuen:

— ¡Badakit zer mergotuko dudan! Zerua er ezkerreko izkina eta han ez nau Jesusek ikusiko.

Lagunei ere hasi zen esaten:

—Zerua margotuko dut!

Eta beste aingeru txikiei gustatu egin zitzaion ideia.

—Bainan nundik aterako dut margo beltza? —esaten zuen aingeruak— Ai, ai, ze tontoa naizen! Jesusek dauka margoa. Kendu egingo diot.

Kendu zion Jesusi margoa. Eta kantatzen hasi zen margotzen ari zen bitartean:

—La, lara, lara...

Eta margotzen ari zen bitartean, pun!, pinturaren potea erori egin zitzaion aurpegira, eta bere lagun aingeruek, aingeru beltz deitzen zioten eta denak parrez eta aingeru beltzak esaten zuen:

—Nun dago ura, nun dago ura?

Ez zuen bilatzen ura eta pintura lehortu egin zitzaion. Orduan ez zekien nola kendu eta negarez hasi izen! esanaz:

—Ai! Jesusek ikusten banau, ederra eukiko dut!

Jesusek zeru pusketa bat beltzez margotuta ikusi zuen pasiatzen ari zenean eta esan zuen Jesusek:

—Ai, nork egin ote zuen hau?

Eta aingeruren bat izan zela pentsatzen zuen.

—Ikusiko du. Aingeruen batzar bat egingo dut eta kanpaiak joko ditut denak etortzeko.

Etorri ziren denak eta galdetu zuen Jesusek:

—Nork margotu du zeru pusketa hau?

Eta aingeru beltzak zutitu eta esan zuen:

—Nik, Jauna, eta nere pote pintura erori zait aurpegi gainera.

Eta aingeru guziak parre egin zuten eta Jesusek zigortu egin zuen bizitza guzian aurpegi beltzarekin gelditzeko eta zerua pixka bat beltza gelditu zen.

Eta horrela bukatzen da aingeru beltzaren ipuina.

Itziar ESKUDERO, 9 urte

Hots honek kristal bat hautsi dela adierazten digu. Nola adieraziko zenuke gauza hauen hotsa?


—Pertsiana bat jeistera-koan?

—Aulki bat bertan eseritze-koan?

—Tantaka ari den iturria?

—Ireki dugun ate bat?

—Haizea zuhaitz artean etzaten denean?



Hitzak: Arantxa CARBONELL
(11 urte)

Marraskia: FEIFFER (TRIUN-
FOTik hartua)



—Orain hamaikak dira eta laister dator autobusa.



—Bainan ez al dator? Pazientzia galtzen ari naiz.



—Han nun datorren autobusa.



—Ez zen autobus hori!



—Gaur txofer horri eman behar diodan bronka!



—Ba, hotz dago eta ez bada azkar etortzen, hemen-txe izoztuko naiz!



—Orain gogoratzen naiz autobusa hamabietan dela eta ez hamaiketan. Hau da burua...!

AGUREAREN

HASERREA